



Beste pertsona  
bati atsegin izateko  
aldatu beharko genuke?

Eta aldatzean  
gure nortasun propioa  
galduko bagenu?



nubeocho

ISBN: 979-13-88132-51-3 www.nubeocho.com



9 791388 132513

NI NEUREKIN NOA

Raquel Díaz Reguera

nubeocho

# NI NEUREKIN NOA



RAQUEL DÍAZ REGUERA



“Ez soilik zati bat hautatu; har nazazu eman moduan;

naizen bezala, osoan; ez zaitezela erratu”. Joan Manuel Serrat

*Berezi egiten gaituzten txikitasunei.*

*Eskerrak nire aitari  
oinak plateretik ateratzeko  
artean hezteagatik.  
Eskerrak nire amari  
hegal batzuk marraztu  
eta erabiltzen erakusteagatik.*

Raquel Díaz Reguera



**Ni neurekin noa**  
Somos8 bilduma

© testuarena eta irudiena: Raquel Díaz Reguera, 2015/2026

© argitalpenarena: NubeOcho, 2026

© itzulpenarena: Beñat Muxika, 2026

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Yo voy conmigo*

Lehen argitaraldia: Maiatza, 2026

ISBN: 979-13-88132-51-3

Gordailu Legala: M-9736-2026

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.



# NI NEUREKIN NOA

Raquel Díaz Reguera



nubeOCHO



Martin gustatzen zait

*Martin gustatzen zait*

**Martin gustatzen zait**

MARTIN GUSTATZEN ZAIT

Martin gustatzen zait

Martin gustatzen zait

Martin gustatzen zait

Martin **gustatzen** zait

Martin **gustatzen** zait

**M** **A** **R** **T** **i** **N**

gustatzen zait



Badakit hala dela, nire ondotik pasatzen  
denean sudurrean azkura baitut eta nire  
belaunak tuntundu egiten baitira...  
Baina Martin ez da ohartzen,

**Martinek ez nau inoiz begiratzen.**



Nire adiskide Luziak esan dit ez zaidala  
ondo geratzen **ilea mototsean bilduta,**  
solte utziz gero akaso Martinek  
begiratuko nauela.

Nire **mototsak** kendu ditut baina...  
**Martinek ez nau begiratu.**



Nire adiskide Anak esan dit agian  
**betaurrekoak** kendu beharko  
nituzkeela. Beharbada  
nire **mototsik** gabe  
eta nire **betaurrekorik** gabe  
Martinek begiratuko nauela.

Betaurrekoak kendu ditut baina...  
**Martinek ez nau begiratu.**



Ohartu naiz nire burua  
**txoriz** husten hasi dela.  
Airatzen eta **urruntzen**  
ikusten ditut.



Nire adiskide Luisek esan dit  
zergatik ez dudan probatzen  
“**irribarretxo** hori neure  
aurpegitik kentzen”. Ziur da  
nire **mototsik** gabe,  
nire **betaurrekorik** gabe  
eta nire **irribarrerik** gabe  
Martinek begiratuko nauela.

Irribarre egiteari utzi diot baina...  
**Martinek ez nau begiratu.**

